


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**KONTRATAZIO DEIALDIA, 2016koa, IKERTZAILEAK  
TUTOREKIDETZAN PRESTATZEKO UPV/EHU<sub>n</sub> ETA IDEX  
BORDEAUX OSATZEN DUTEN UNIBERTSITATEETAN**

## **HITZAURREA**

2014ko azaroaren 19an Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak oinarritzko hitzarmen bat egin zuen IdEx Bordeaux osatzen duten unibertsitateekin, Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa eratzeko, beren bikaintasun proiektuen testuinguruan (Euskampus eta IdEx Bordeaux). Euroeskualdeko Campusaren helburua mugaz gaindiko sare bat osatzea da, nazioartean eragina izango duena eta ardatz atlantikoaren erreferentzia bilakatuko dena hala jakintzaren sorrerari nola gaitasun zientifiko eta teknologikoei dagokienez, eta hori jakintzaren balio kate osoan: ideien sorreratik hasi eta ideiak gizartearentzako onura bilakatu arte.

**Oinarritzko hitzarmenak xede hauek ditu, besteak beste: sinatzaileen arteko lankidetzak akademikoak, gradu eta masterreko titulazioak eta etengabeko prestakuntzako ikasketak elkarrekin emateko, erakunde bietan aitortpena izango dutenak kredituetan; ikerketa proiektuak egitea lankidetzan; eta doktorego tesiak tutorekidetzan zuzentzea.**

### **1. oinarria.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdiaren xedea da doktorego aurreko bost kontratu finantzatzea doktorego tesia tutorekidetzan egiteko Euskal Herriko Unibertsitatean eta IdEx Bordeaux proiektua osatzen duten unibertsitateetako batean —Bordeleko Unibertsitatea (BU), Bordeleko Moutaigne Unibertsitatean (UBM); Bordeleko Institutu Politeknikoan (IPB); Bordeleko Politika Ikasketen Institutuan (BSPo); edo Nekazaritza Zientzien Institutuan (BSA)— bi unibertsitateek sinatutako oinarritzko hitzarmenaren helburuaren arabera.

UPV/EHUko arau akademikoak betez, unibertsitate biek tutorekidetzak hitzarmen bat sinatuko dute finantzatuko den tesi bakoitzerako, eta hor zehaztuko dira tesiaren xehetasun akademikoak.

Hitzarmen horietan aurreikusten ez den guztia herri finantzatzailearen arauari jarraituz ebatziko da.

### **2. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK**

Deialdi hau Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen aplikazio eremuan kokatzen da; deialdi honetan erabili beharreko kontratu modalitatea 21. artikuluan arautzen da.

2.1 Kontratuaren helburua proiektu espezifiko eta berritzaile baten barruan ikerketa lanak egitea izango da. Kontratututako langileak prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileak izango dira.

2.2 Kontratua idatziz egingo da prestakuntza bidean dagoen doktorego aurreko ikertzailearen (hau da, langilearen) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (hau da, enplegatzailearen) artean.

2.3 Kontratututakoa, beraz, UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, eta bertan egingo du doktorego tesia.

### **3. oinarria. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

3.1 Bizileku baimenaren jabe izatea, Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan.

3.2 UPV/EHU doktorego programa batean matrikulatuta egotea. Baldintza hau kontratua egitean egiaztatu beharko da. Eskatzailearen ardura izango da eskarian zehaztutako doktorego programan matrikulatzea, ezarritako epe eta moduan.

3.3 Eskatzaileak ondoko baldintza hauetariko bat bete beharko du:

- a. Lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura, gradu edo pareko tituluaren jabe izatea, eskaria aurkezteko unean, ikasketa hauek 2013ko ekainean edo geroago amaituta.
- b. Osasun prestakuntza espezializaturako proba gainditu eta plaza bat lortu duten pertsonen kasuan, ebaluazio positiboaz amaitu izana gutxienez bi urteko prestakuntza, Osasun Zientzietako espezialitate bateko programa ofizialean, eta bi urte horiek 2013ko ekainean edo geroago amaitu izana.

3.4 Une honetan ez edukitzea, eta inoiz eduki ez izana, ikertzaile ez-doktoreek prestakuntza hartu eta doktorego tesia egiteko bekarik, Ikertzaileen Estatutuari buruzko urtarrilaren 27ko 63/2006 EDren babespean jasotakorik.

3.5 Eskatzaileek proposatutako tesi proiektuak kokatu beharko dira bi unibertsitateek adostutako Topics of ongoing collaborations-en batean (ikus I. eranskina).

### **4. oinarria. TESI ZUZENDARIEN BALDINTZAK**

4.1 Tesi zuzendari bat ezin izango da ageri eskari batean baino gehiagotan. Baldintza hau bete ezean, ezetsi egingo dira haren izena duten eskari guztiak.

4.2 UPV/EHUko zuzendarikidea eskarian adierazitako doktorego programako irakasleetako bat izan beharko da eskaria aurkezten den momentuan.

4.3 UPV/EHUko zuzendarikidea izan beharko da UPV/EHUko funtzionario, estutupeko langile edo lan kontratudun langile egonkorra, eskaria aurkezten denean eta laguntza jasotzen den epe osoan.

4.4 Eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen, UPV/EHUko tesi zuzendariak izan beharko du CNEAik (Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak) aitortutako seiurteko bizi bat gutxienez, edo irakasle ez-iraunkorren kasuan, pareko beste ebaluazio agentzia akreditatu batek egindako ebaluazio positiboa (seiurteko biziaren baliokide bat).

4.5 IdEx Bordeauxeko unibertsitateko zuzendarikideak, berriz, aurkeztu beharko du, eskariaren gainerako dokumentazioarekin batera, «Tesi zuzendariaren ekarpen zientifikoak» izeneko dokumentua (deialdi honen II. eranskina).

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak dokumentua bidaliko du Graduondoko Ikasketen Zerbitzura, horrek tramita dezan, Graduondoko Ikasketen eta

Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzako Doktorego Batzordearen aurrean.

Tesia zuzentzeko gaitasunaren analisia ezezkoa izango balitz, hala jakinaraziko zaio eskatzaileari, 12.1 oinarrian ezarritako prozedurari jarraikiz.

Dena dela, ahal izanez gero, berehalakoan jakinaraziko zaio eskatzaileari eskarian proposatutako tesi zuzendaria ez dela egokia, hartara beste bat proposa dezan 12.1 oinarrian adierazitako epea amaitu baino lehen.

## **5. oinarria. KONTRATUEN IRAUPENA**

5.1 Kontratuak iraupen zehatza izango du eta arduraldi osokoa izango da.

5.2 Kontratuak urtebete iraungo du eta, interesduna programan dagoen bitartean, bi aldiz luzatu ahal izango da, bakoitzean urtebeterako, betiere doktorego programako batzorde akademikoak edo, hala badagokio, Doktorego Eskolak aegindako urteko txostena aldekoa bada.

Luzapenak horretarako aurrekontua egotearen menpe egongo dira.

Nolanahi ere, kontratua luzatzeko ezinbestekoa izango da eskarian adierazitako doktorego programan urtero matrikula egitea. Ez da programa aldaketarik onartuko kontratua luzatzeko.

Hasierako kontratuak gehi luzapenek ezin izango dute guztira hiru urtetik gora iraun, salbu eta kontratua % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona batekin sinatu bada. Kasu horretan, aztertuko da kontratua gehiago luzatzeko aukera, kontratatutako pertsonak doktoregoko prestakuntzarako eperik luzeena arduraldi osoan agortu arte.

4.5. Pertsona bat modalitate honen bidez kontratatuta egon bada beste erakunde batean, UPV/EHUk ezin izango du kontratatu hiru urteren eta beste erakundean emandako denboraren arteko diferentzia baino luzeagoa den epe baterako.

5.4. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzio edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak eten egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

5.5 Ikerketaren arloko errektoreordeak eten ahal izango dio beka interesatuari sei hilabetez gehienez ere, bekadunak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza amaituko da erabakian ezarritako epean. Laguntza etenda dagoen bitartean interesduna baja emanda egongo da Gizarte Segurantzari. Etenaldiaren ondoren interesduna lanera itzuli ezean, bekari uko egin diola ulertuko da, eta automatikoki emango zaio baja.

## **6. oinarria. KONTRATUEN ORDAINSARIA**

Kontratu etako ordainsari gordina 15.971 eurokoa izango da lehenengo urtean, 17.112 eurokoa bigarrenean, eta 18.538 eurokoa hirugarrenean 14 ordainketatan banatuta.

## **7. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK**

7.1 Ikertzaileok eskubidea izango dute txertatzen diren sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, haien baliabideen neurrian, beren ikasketa eta ikerketa programetako zereginak egiteko.

7.2 Kontratututako langileek eskubidea izango dute Ikerketako Zerbitzu Nagusien (SGIker) eta eurak, ikertzaileak, atxiki diren ikertaldearen azpiegiturak eta materiala erabiltzeko. Era berean, eskubidea izango dute ikertaldeak bere ikerlana egiten duen sailaren eta ikastegiaren baliabideak erabiltzeko, kasu bakoitzean zehazten diren baldintzei men eginez betiere.

7.3 Deialdi honen bidez kontratatutako langileek beren ikerketarekin zerikusia duten irakaskuntza lan osagarriak egin ahal izango dituzte (gehienez 60 ordu urtean), dagokion sailarekin ados jarri ondoren eta UPV/EHUko langileen bateraezintasunei buruzko araudia betez. Ezin izango dira, hala ere, irakasgaien arduradunak izan, eta ezingo diete ikasleei probarik edo ebaluaziorik egin.

## **8. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

8.1 Eskarian adierazitako doktorego programan urtero matrikula egitea, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak ezarritako epeetan.

8.2 Bere lana egitea unibertsitate bakoitzean atxikita dagoen sail, institutu edo gunean.

8.3 Unibertsitate bakoitzeko organo eskudunek eskatzen dizkioten txosten, formulario eta gainerako dokumentuak betetzea.

8.4 Deialdi hau aipatzea kontratuak iraun bitartean egindako ikerketen ondorioz egiten diren argitalpenetan eta bestelako emaitzetan.

8.5 Organo eskudunek bere ikerketa jardunaren inguruan egin ditzaketen egiaztapen, finantza kontrol eta jarraipen lanak onartzea eta horretarako eskatzen dioten informazio guztia ematea.

8.6 Bere ikerketa lanen ondorioz argitalpen, patente, baliagarritasun modelo eta jabetza intelektualeko objektu edo obrarik sortzen bada, aitortzea haien jabeak UPV/EHU eta IdEx Bordeauxeko kasuan kasuko unibertsitatea direla. Hala ere, ikertzaileari aitortuko zaio, era berean, bera dela jabetza industrial edo intelektual horren asmatzailea.

8.7 Ikertzailearen Europako Kartak ezarritako betebeharrak orokorrak eta espezifikokoak betetzea.

## **9. oinarria. TESI ZUZENDARIEN BETEBEHARRAK**

9.1 Tesi zuzendarien betebeharrak izango da doktoregaiei emandako laguntza dagokion helbururako erabiltzen dela bermatzea, eta diru laguntzak dirauen epean tesiak zuzentzea. Era berean, haien eginkizuna izango da jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragoz lezaketen gorabehera guztien berri ematea Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

9.2 Deialdi honen bidez kontratatutako langileek doktore gradua lortzen dutenean, zuzendariek Ikerketaren arloko Errektoreordetzari eman beharko diote horren berri.

9.3 Bete beharko dituzte Ikerketaren arloko Errektoreordetzak edo deialdiaren kudeaketan parte hartzen duten zerbitzuek eskatzen dizkieten txosten, formulario eta gainerako dokumentuak..

## 10. oinarria.- ESKARIAK AURKEZTEKO ERA

10.1 Eskariak nahitaez bete beharko dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian (<http://www.ikerkuntza.ehu.eus>) dauden formulario ofizialetan.

Eskariaren formularioa behin bete eta gero, PAPEREAN eta FORMATU DIGITALEAN (PDF eta Word) aurkeztuko da USB, CD edo DVD batean, eskariak aurkezteko epearen barruan. Horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztuko dira EUSKARRI DIGITALEAN (PDF besterik ez):

- a. **Eskari orria.** Tesi zuzendariek eta, tesia egingo den sail, institutu edo guneko zuzendariak sinatu beharko dute, sistema hauetako bat erabiliz: e-NANA, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa edo eskuz egindako jatorrizko sinadura (Herritarrek zerbitzu publikoak eskuratzeko sarbide elektronikoari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 13. 2 art.). Eskuz sinatuz gero, ez da eskaneatutako sinadurarik onartuko: dokumentu hau paperean aurkeztu beharko da.
- b. **Ikertzailearen ziurtagiri akademikoa,** lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura, gradu edo baliokidearena. Bertan, lortutako kalifikazio guztiak eta haien datak agertu beharko dira. Ziurtagirian adierazita egon beharko da interesdunak eginiko irakasgai eta kreditu guztiek lizentziatura osoa edo haren baliokidea osatzen dutela.
- c. **Atzerrian egindako unibertsitate ikasketen kasuan, batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria, Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) emana.** Ikasketak atzerrian egin dituzten pertsonak bakarrik aurkeztu beharko dute dokumentu hau. ANECAren zerbitzu atariaren bidez eskuratu ahal da (<http://notasmedias.aneca.es>).
- d. **Eskatzaileen curriculuma.**
- e. **Identifikazio dokumentu ofizialaren kopia: NAN, AIZ, pasaporte edo jatorrizko herrialdeko dokumentuarena.**
- f. **Eskatzailearen lan bizitzaren ziurtagiria,** Gizarte Segurantzak emana, estatu espainiarreko herritarra izanez gero.
- g. **Tesi zuzendarien curriculum laburtua** (bai UPV/EHUkoarena eta bai IdEx Bordeauxeko unibertsitatekoa).
- h. **Erantzukizunpeko adierazpena,** UPV/EHUko tesi zuzendariak egina eta sinatua, non konpromisoa hartzen duen 9. oinarrian deskribatutako betebeharrak betetzeko eta tesiaren defentsarako duten baldintza ekonomikoak eta ikerketa baldintzak sortzeko. dokumentu hau paperean aurkeztu beharko da.

- i. **Tesi zuzendariaren ekarpen zientifikoak jasotzen dituen dokumentua.** Deialdi honen **II. eranskina**. Dokumentu hau bakarrik aurkeztu beharko dute 4.5 oinarriaren azken paragrafoa dagokien pertsonak.

10.2 Eskatzaileak aurkeztu beharko du bere eskaria eta aurkeztutzat joko da bakar-bakarrik dokumentazioa aurkezten badu Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzenduta, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetako erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakian (2012ko ekainaren 18ko EHAA) aipatzen diren bulegoetako batean; edo, bestalde, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan esaten den moduan.

Hau da erregistroen ordutegia: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30etara; urte osoko ostiraletan, udako lanaldi jarraituan eta udaberriko eta neguko txandetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Eskariak edozein posta bulegotan ere erregistratu ahal izango dira. Hala eginez gero, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztu beharko da, posta zerbitzuko langileak zigilua jar dezan eskariaren lehenengo orrian. Administrazio zigilu hori ez duten eskariak ez dira onartuko. Ondoren, dokumentazio osoa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Errektoregoaren eraikina

Sarriena Auzoa, z. g.

48940 Leioa (Bizkaia)

### 10.3 Eskariak betetzeko era:

10.3.1 Eskariak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez aurkez daitezke.

10.3.2 Euskaraz edo frantsesez aurkeztutako eskariekin batera, 10.3.4 oinarrian zehazten diren atalak ingelesera edo gaztelaniara itzulita aurkeztu beharko dira.

10.3.3 Gaztelaniaz aurkeztutako eskariekin batera, 10.3.4 oinarrian zehazten diren atalak ingelesera itzulita aurkeztu beharko dira.

10.3.4 Eskari orriarekin batera aparteko dokumentu batean aurkeztu behar diren atalak:

- a. Gaiaren ikerketaren aurrekariak eta egungo egoera eta bibliografia.
- b. Ikerketaren helburu orokorrak.
- c. Metodologia eta egin beharreko ikerketa lanak.

- d. Tesi zuzendariaren kalitate zientifikoa ikergaiari dagokionez.
- e. Ikerketarako behar diren azpiegituren eskuragarritasuna eta kalitatea.
- f. Eskatzailearen esperientzia.
- g. Bestelakoak (azaldu).

10.4 Eskatzaileek matrikula egin beharko dute eskarian adierazitako doktorego programan, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolak (Mde) zehazten dituen epeetan.

## 11. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskariak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 22ra artekoa izango da.

## 12. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

12.1 Eskariak aurkezteko epea amaitu eta, gehienez, hogeitun egun balioduneko epean, jasotako eskaeren zerrenda argitaratuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean (<http://www.ikerkuntza.ehu.es>) «Doktorego aurreko bekak» atalean. Eskariren batek akatsa baldin badauka edo dokumenturen bat falta bazaio, bertan adieraziko da, interesatuek zuzendu edo osa ditzaten.

Ondoren, hamar egun balioduneko epea emango da akatsak zuzentzeko, baina epe horretan eskariak ezin izango dira beren osoan ordeztu, eta ezingo da aurkeztu deialdian eskatu ez den dokumenturik. Epe hori igaro eta falta zena aurkeztu ez bada, eskatzaileak eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da, eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak dagokion erabakia emango du.

12. 2 Ebaluaziorako 2, 3 eta 4. irizpideen balorazioa kanpoan egingo da, ANEPen bidez, eskarian adierazitako ebaluazio arloa aintzat hartuta.

12.3 Ebaluazio txostenak Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari (IGBB) bidaliko zaizkio; horrek esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, errektoreordeak behin-behineko erabakia eman eta argitara dezan.

12.4 Irizpide hauek erabiliko dira eskariak ebaluatzeko:	Gehieneko puntuazioa
1. Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	40 puntu
2. Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, finantzabide egokia izatea barne.	30 puntu
2. Eskatzailearen esperientzia eta curriculum.	10 puntu



4. Curriculum vitae: tesi zuzendaria partaide izatea bizirik dauden ikerketa proiektuetan eta esperientzia izatea doktorego tesiak zuzentzen.  Ikertalde biak ikuspegi zientifikotik elkarren osagarriak izatea.	20 puntu
GUZT.	100

**Oharra: espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (balorazio irizpideen lehenengo atala) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan UPV/EHU<sup>n</sup> titulazio hori amaitu duten ikasleen batez besteko notak erabiliz.**

Eskarian adierazitako titulazioa ez badago UPV/EHU<sup>n</sup>, edo titulazio horretako batez besteko noten kopurua ez bada adierazgarria, nota normalizatzeke oerabiliko dira aurreko ikasturteetan UPV/EHUko titulazio guztien multzoan lortutako batez besteko notak.

**NORMALIZAZIORAKO ERABILITAKO FORMULAK:**

**Eskatzailearen\_NK:** eskatzailearen espediente akademikoaren normalizazio koefizientea.

**Eskatzailearen\_BatezBestekoNota:** eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

**Titulazio\_BatezBestekoNota:** eskarian adierazitako titulazioko espediente akademikoen azken urteotako batez besteko nota haztatuen batezbestekoa.

**Gutx\_NK:** titulazio guztietarako gutxieneko normalizazio koefizientea.

**Gehi\_NK:** titulazio guztietarako gehieneko normalizazio koefizientea.

**Tit\_DesbEstandarra:** eskarian adierazitako titulazioko espediente akademikoen azken urteotako batez besteko nota haztatuen desbideratze estandarra.

**Eskatzaile\_NotaNormalizatua:** puntuazio orokorra lortzeko (bi hamartarretan biribildua), 12.4 oinarrian ezarritako gainerako irizpideetan lortutako puntuazioei gehitzen zaien normalizazioaren ostean ateratzen den nota.

**Eskatzaile\_NK =**

$$\frac{\text{Eskatzaile\_BatezBestekoNota} \times 10 - (\text{Titulazio\_BatezBestekoNota} \times 10)}{\text{Tit\_DesbEstandarra}}$$

**Eskatzaile\_NotaNormalizatua =**

$$40 + 30 \times \frac{(\text{Gehi\_NK}) - (\text{Eskatzaile\_NK})}{(\text{Gutx\_NK}) - (\text{Gehi\_NK})}$$

Ondoren, titulazio bakoitzeko puntuazio normalizatu guztiak zerrenda bakar batean bilduko dira, handienetik txikienera ordenatuta.

Eskatzaileak titulazio bat baino gehiago egin baditu, 3.2 oinarrian ezarritako denbora baldintza betetzen duena erabiliko da normalizaziorako.

**(b) Oharra:** Espainiako unibertsitate sistematik kanpoko espedienteen kasuan, 1. irizpidean erabiliko den balioa izango da ANECAk esleitzen duena atzerriko unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez, lehiaketa prozesu batean aurkezteko baliokidetza egitea beharrezkoa denean.

ANECAREN egiaztagiria deialdiaren 10. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da.

Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 1. irizpidean 10 puntu esleituko dira.

### **13. oinarria. ERABAKIA**

13.1 IGBBK behin-behineko erabakia emango du. Interesdunei horren berri emango die eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da. Erabakian azalduko da eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa.

**Interesdunak hamar eguneko epea izango du erabakia onartzeko, hari uko egiteko edo alegazioak aurkezteko.**

**Epe horretan alegaziorik edo idatzizko ukorik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta interesdunak alegazioak egiteko eskubidea galduko du.**

13.2 Aipatutako epea igarota, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak aurkeztu diren alegazioak helaraziko dizkio IGBBri, honek azter ditzan eta behin betiko erabaki proposamena aurkez diezaion Ikerketaren arloko errektoreordeari.

13.3 Behin betiko erabakia Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian argitaratuko da, eskatzaileen behin betiko sailkapenarekin.

Honez gain, behin betiko erabakiaren jakinarazpena interesdun bakoitzari bidaliko zaio, egindako ebaluazioaren kopia batekin.

13.4. Erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 116. eta 117. artikuluei jarraituz. Era berean, erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

Deialdi hau argitaratu eta sei hilabeteko epean Ikerketaren arloko Errektoreordetzan kontratuak esleitzeko erabakirik argitaratu ez bada, interesdunek ulertu beharko dute beren eskaria ez dela onartu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen arabera (44.1 art.).

13.6 Azken puntuazioan berdinketarik balego, lehenetsuna emango zaio espediente akademikoan batez besteko nota haztatu handiena daukanari (12.4 oinarria, 1. irizpidea).

#### **14. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA**

14.1 Kontratuak formalizatu baino lehen, adjudikaziodunek laguntza lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna frogatu beharko dute. Egiaztatu ezin badituzte, Ikerketaren arloko errektoreordeak laguntza ukatzeko erabakia emango du.

Dokumentazio hau aurkezteko epea laguntzei buruzko behin-behineko erabakian adieraziko da.

Kontratuaren adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte Ikerketaren arloko Errektoreordetzan:

- a. Eskarian adierazitako doktorego programako matrikularen gordekina.
- b. Deialdi honetako kontratuaren adjudikaziodunak diren aldetik dagozkien betekizunak onartzeko dokumentua, tesi zuzendariak eta saileko/institutuko zuzendariak ontzat emana.
- c. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- d. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz ez dela egon kontrataturik Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, edo, kontrataturik egon baldin bada, zenbat egunez egon zen kontrataturik.
- e. Lanean hasi izanaren ziurtagiria.
- f. Desgaitasunak dituzten pertsonak aurkeztu beharko dute desgaitasunen maila, ehunekoetan emana, egiaztatzen duen ziurtagiria, Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera (minusbalotasuna aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko dekretua).
- g. Kasuan kasuko etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.
- h. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimen administratiboa aurkeztu beharko dute, Espainian dauden atzeritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan).

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuari uko egiten zaiola ulertuko da.

14.2 Aurreko atalean adierazitako baldintzak bete eta hurrengo hilabetean formalizatuko dira kontratuak eta hasiko dira lanean kontratatutako langileak, dagokien sail, institutu edo gunean.

Dagokion egunean adjudikazioduna kontratua sinatzera agertuko ez balitz edo sail, institutu edo gunean lanean hasiko ez balitz, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

14.3 Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Ikerketaren arloko errektoreordeak baimena eman ahal izango du hasiera eguna gehienez sei hilabetez atzeratzeko. Hasiera atzeratzeko eskaera 14.1. oinarrian ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko da.

14.4 Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da eta, hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

14.5 Kontratua sinatu eta sei hilabeteke epearen barruan, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak (IGZ) ofizioz egiaztatuko du onuraduna matrikulatuta dagoen eskarian adierazitako doktorego programan, eta tesiaren zuzendariak benetan diren eskarian adierazitakoak. Bi baldintza hauek betetzen ez badira, kontratua atzera botako da.

## **15. oinarria. BATERAEZINTASUNAK**

15.1 Deialdi honen bidez hautatutako pertsonen ez zaie kontratu egonkorrik egingo ez UPV/EHUrekin ez IdEx Bordeauxeko unibertsitatearekin. Kontratu harremana kontratua amaitzean bukatuko da.

15.2 Deialdi honetako kontratuak ez dira bateragarriak beste lan kontratu bat izatearekin, edo beste soldata bat jasotzearekin, 5.1. oinarrian ezarritako arduraldi osoko erregimena dela eta.

## **16. oinarria. UKO EGITEA, BAJA ETA KONTRATUAREN AMAIERA**

Deialdi honen bidez kontratatutako langileak uko egiten badio kontratuari, baja hartzen badiu edo bestelako gorabeherarik baldin badauka kontratuarekin, tesi zuzendarietako batek horren berri eman beharko dio UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzari, kasuan kasuko egiaztapen dokumentuak helaraztearekin batera.

Gainera, kontratatutako ikertzaileak berak uko, baja edo bestelako gorabeheraren berri eman beharko dio Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari.

## **17. oinarria. JARRAIPENA**

17.1 Deialdi honen bidez kontratatutako ikertzaileek unibertsitate bakoitzeko organo eskudunek eskatzen dizkieten txosten, formulario eta gainerako dokumentuak bete beharko dituzte.

17.2 UPV/EHUra, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera bete beharko dituzte ikertzaileek eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzari aurkeztuko dizkiote kontratuko urte bakoitza amaitu osteko lehen hilabeteetan.

17.3 Kontratua amaitu eta hilabeteko epean, amaierako txosten bat aurkeztuko dute Ikerketaren arloko Errektoreordetzan, kontratuak iraun duen bitartean egindako lanak bilduko dituen.

## **18. oinarria. KONTRATUA EZEZTATZEA**

Hauek izango dira kontratua ezeztatzeako arrazoi:

- a. Kontratatuak kontratuari uko egitea.
- b. Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c. Eskarian adierazitako doktorego programan matrikulatuta egoteari uztea.
- d. Betebeharrak ez betetzea edo laguntza emateko aintzat hartu ziren baldintzak aldatzea, adibidez ez egotea matrikulatuta eskarian adierazitako doktorego programan edo eskarian adierazitakoak ez diren beste tesi zuzendari batzuk izatea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak aurretik ageriko baimenik eman gabe.
- e. Tesi zuzendariak edo doktorego programaren arduradunak hala eskatzea txosten arrazoitu baten bidez.
- f. Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- g. Laguntzarako krediturik ez egotea aurrekontuan.
- h. Doktore titulua eskuratzea

## **19. oinarria. IKERKETAN BETE BEHARREKO PRINTZIOAK**

19.1 Deialdi honen bidez egingo diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak edo datu pertsonalak erabili nahi badira, baldintza hauek bete behar dira:

- Printzipio etikoen adierazpen hauek errespetatzea: Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Hitzarmena, 1999; eta Tokio, 2004.
- Lege hauek betetzea: Ikerketa Biomedikoari buruzko 14/2007 Legea; Biobankuei buruzko 1716/2011 ED; Pazientearen Autonomiari buruzko 41/2002 Legea; Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Legea; eta Datu Pertsonalak Babesteari Buruzko UPV/EHUren 2008ko Arautegia.
- UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordeak (IIEB/GIEB) aurretik nahitaez egin beharreko txostena edukitzea eta aldekoa izatea, UPV/EHUren Ikerketa eta Irakaskuntzaren Arloan Etikako Organoak Arautzeko Arautegian jasotzen den bezala (Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakia, 2014/02/17ko EHAA, 32. zk.).

19.2 Deialdi honen bidez egingo diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, baldintza hauek bete behar dira:

- Nazioartean sustatzen diren ordezte, murrizte eta leuntze irizpideak errespetatzea.

- Animaliekiko ikerketaren arloan indarrean diren arauak betetzea (53/2013 ED).
- Animaliekin Egindako Esperimentuetarako Etika Batzordeak (AEBB) aurretik nahitaez egin beharreko txostena edukitzea eta aldekoa izatea, UPV/EHUren Ikerketa eta Irakaskuntzaren Arloan Etikako Organoak Arautzeko Arautegian jasotzen den bezala (Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakia, 2014/02/17ko EHAA, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena izatea (foru diputazioen abeltzaintza sailrena).

19.3 Deialdi honen bidez egin nahi diren jardueretan agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, baldintza hauek bete behar dira:

- Prebentzio, zuhurtasun eta informazio printzipioak errespetatu, gizakien osasuna eta ingurumena babesteari dagokionez.
- Arlo honetan indarrean den legeria betetzea: 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 664/1997 ED, agente biologikoen inguruan lan egitearen arriskuetatik langileak babesteari buruzkoa; 664/1997 ED, agente kantzerigenoen inguruan lan egitearen arriskuetatik langileak babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatuari, haiek merkaturatzeari eta nahita askatzeari buruzkoa.
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin Egindako Ikerketetarako Etika Batzordeak aurretik nahitaez egin beharreko txostena edukitzea eta aldekoa izatea, UPV/EHUren Ikerketa eta Irakaskuntzaren Arloan Etikako Organoak Arautzeko Arautegian jasotzen den bezala (Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakia, 2014/02/17ko EHAA, 32. zk.).

19.4 Deialdi honen bidez egin nahi diren jardueretan giza enbrioietatik erauzitako zelula amak edo horietatik eratorritako zelula lerroak erabili nahi badira, lege hauek bete behar dira: 45/2003 Legea eta 2132/2004 ED, soberako aurreenbrioietatik erauzitako ama zelulekin ikerketa proiektuak egiteko baimena eskatzeko baldintza eta prozedurak ezartzen dituztenak; eta uztailaren 4ko 09/2014 ED, giza zelula eta ehunak eman, eskuratu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituenak.

Horrez gain, giza lagin biologikoak egokiro eskuratu eta erabiltzeko, arau hau ere izan behar da kontuan: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, giza laginekin egiten diren ikerketak arautzen dituena, eta oinarritzko baldintzak zehazten dituena biomedikuntzako ikerketarako biobankuak baimentzeko eta haien funtzionamendurako, eta arautzen duena Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua.

19.5. Deialdi honen bidez egiten diren jarduerak ez dira inolaz ere izango gerra egiteko edo sustatzeko bide, eta, zehazki, haien bitartez ez da kolaboratuko armak egin edo saltzen dituzten enpresekin.

## **AZKEN XEDAPENA**

Interesdunek deialdiaren eta bere oinarrien eta deialditik erator daitezkeen administrazio egintza guztien aurka egin dezake Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 30/1992 26 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzeko Legean zehaztutako epean eta eran.

Leioa, 2016ko ekainaren 17a

Fernando Plazaola Muguruza  
Ikerketaren arloko errektoreordea

## I. ERANSKINA

**Doktorego tesiak ikerketa arlo hauetakoren batean kokatu behar dira:**

Advanced manufacturing and Materials
Ageing and frailty
Archaeology
Arts
Biological ecosystems
Biomedicine
Computing, modelling and simulation
Education
Food and nutrition
Marine energies
Neurosciences
Photonics and translational imaging
Social innovation
Theoretical chemistry and physics at the quantum scale

**Eskarietan adierazi behar da doktorego tesiaren ikerketa proiektua ANEPren zein ebaluazio arlori dagokion:**

## I. ERANSKINA

**Doktorego tesiak ikerketa arlo hauetakoren batean kokatu behar dira:**

Advanced manufacturing and Materials
Ageing and frailty
Archaeology
Arts
Biological ecosystems
Biomedicine



Computing, modelling and simulation
Education
Food and nutrition
Marine energies
Neurosciences
Photonics and translational imaging
Social innovation
Theoretical chemistry and physics at the quantum scale

**Eskarietan adierazi beharko da doktorego tesiaren ikerketa proiektua ANEPren zein ebaluazio arlori dagokion:**

<b>AGR</b>	Nekazaritza
<b>BFS</b>	Oinarrizko Biologia eta Sistemen Biologia
<b>BMED</b>	Biomedikuntza
<b>BVAE</b>	Landareen eta Animalien Biologia eta Ekologia
<b>CS</b>	Gizarte Zientziak
<b>CT</b>	Lurraren Zientziak
<b>EDUC</b>	Hezkuntza Zientziak
<b>FI</b>	Fisika eta Espazioaren Zientziak
<b>HA</b>	Historia eta Artea
<b>IEL</b>	Ingeniaritza Elektrikoa, Elektronikoa eta Automatika
<b>INF</b>	Konputazio Zientziak eta Teknologia Informatikoa
<b>MCLI</b>	Medikuntza Klinikoa eta Epidemiologia
<b>MTM</b>	Matematika
<b>TM</b>	Materialen Zientzia eta Teknologia